

NO A LA SUPER-SUR

Desde la gazte asanblada del Gaztetxe Basetxea de Trapagaran nos oponemos frontalmente a la construcción de la Super-sur por diversos motivos:

- La construcción de una nueva autopista, ahora en el 2006, supone un concepto totalmente anacrónico enmarcado dentro de una concepción de evolución mas que cuestionable.


- La construcción de esta autopista no solucionará el problema de descongestión de tráfico que supuestamente trata de paliar.

- Dicha construcción generará una gravísima destrucción de ecosistemas y seres vivos con un incuestionable valor ecológico, además de potenciar una mayor polución y contaminación derivadas del uso indiscriminado del automóvil.

- Por último, supondrá un deterioro ostensible no solo del pueblo, sino ya de la calidad de vida de sus habitantes.

Os invitamos a que estéis atentos a próximas acciones e iniciativas, y a aquellos interesados os animamos a pasar tanto por el Basetxe como por alguna otra asociación para informarnos en la medida de nuestras posibilidades.

Organizate y lucha.



Pikotxa trapagaranen zabaltzen den boletin kritiko eta partehartzaile bat da, bertan parte hartu nahi duenak bere aportazioa helbide elektronikora bidaltzea besterik ez du, iritzi bat, edozein informazio, data aipagarriren bat, argazkia, poesia...



PIKOTXA

pikotxa@gaztesarea.net

Basetxe Gaztetxea
Salcedillo Estarta 12
bis



PIKOTXA

1. a1ea

2006 azaroa

OUR SYSTEM



And They call it FREEDOM



ZERGATIK PIKOTXA??

Baguenen garaia gazteok eginiko publikazio bat kaleratzeko. Publikazio kritikoa, autogestionatua, partehartzailea, lotsagabea, ameslari zein poetikoa, iraultzailea, gazteon eta gizarte honen hainbat arazo jor-ratuko dituen eta zure laguntzarik gabe zihur aski lehenago edo beranduago pikutara joango dena.

Hori behar bait du izan hila-betekari honen mamia, bere irakurleen partehartze aktiboa, horrela guk hilabetero agenda eta hilabeteko berezia sailak osatuko badi-tugu ere, iritzia saila, zein bururatzen zaizuen beste

edozein sail edo kolaborazio zuen eskutan egotea espero dugu, horretarako daukagun posta elektronikoaren bidez.

Hilabeteko berezia sailean dagokion hilabetean gaztetxean dagoen ekintza bereziari buruz hitz egingo dugu eta agendan gaztetxean astero zein hilabete horretan dauden ekintza eta tailerrak nabarmenduko ditugu.

Lagun gaitzazu beraz falta zaizkigunak osatzen, entzuzun dadila herritarron ahotsa.

Has dadila jokoa...

GEZUR 1= 22 URTE, ZIGOR ASKATU !!

22 urte bai, hori da espainako auzitegi gorenak gure gaztetxeko kide eta la gun Zigorri orain aste batzuk berretsi dion zigorra,

auzi berean Portugalteko Ander A. aske geratu zelarik Gezur eta triki-mailu politikoen bidez ezarria (herri honetako gezurtiak

barne) era bidegabean lortutako ADN frogak dauka oinarrian zigor honek .
ASKI DA!
ZIGOR ASKATU!

AURKIBIDEA

- Aurkezpena.....1
- Agenda.....2
- Hilabeteko berezia....3
- Iritzia.....4

AZAROA 2006

Ast1	Astr	Astz	Ostg	Ostr	Lrnbt	Ignd
		1 Txalaparta tailerra	2	3 Dantza tailerra	4 Amnistia Futbito Tx Elorrión ★	5
6 Gazte asanblada	7 Perkusio tailerra	8 Txalaparta tailerra	9	10 Dantza tailerra	11	12
13 Gazte asanblada	14 Perkusio tailerra	15 Txalaparta tailerra	16	17 Dantza tailerra	18 Herr Kiroi desafio ★	19
20 Gazte asanblada	21 Perkusio tailerra	22 Txalaparta tailerra	23	24 Dantza tailerra	25	26
27 Gazte asanblada	28 Perkusio tailerra	29 Txalaparta tailerra	30			

TAILERRAK ETA GAZTE ASANBLADA

- **Gazte asanblada:** Astelehenero 19:30 tan gaztetxean biltzen da.



- **Perkusio tailerra:** Asteartero 20:00 tan gaztetxean Tutupa perkusio afrikar taldearen eskutik.

- **Txalaparta tailerra:** Asteazkenero 19:00 tan gaztetxean Ezpala txalaparta tailerraren eskutik.



- **Euskal Dantza tailerra:** Ostiraleroko 18:30 tan gaztetxean.

Tailer guztiak autogestionatuak eta doakoak dira. Gehien estimatzen duguna zuen partehartze aktiboa da, beraz animatu eta parte hartu gustoko duzun tailerrean. Edozein informaziorako gaztetxera igo eta tailerra den egun eta orduan bertan aurkeztea besterik ez daukazu.



TRAPAGARAN EUSKALDUNA TA GORRIA!!



Bizkaiko mendebaldean, burdin meatokien bihotzean kokatzen den herria dugu Trapagaran, nekazarien aitzur kolpez zein meatzarien barrena zartadaz zaildutako herria.

Azken hamarkadetan ikastolak eta irakaskuntza publikoak gazteria euskaldu badu ere, geure herria ez da euskalduna. Horregatik gazteok makina bat arazo baditugu egunerokotasunean euskaraz bizitzeko, euskal kulturako erreferenteak ezagutzeko zein oro har euskal munduan murgiltzeko, mundu hau ez baita geure inguruan kasik existitzen.

Ez dugu instituzioen laguntzarik ez eta herrian sentsibilitaterik, ondorioz bidea zaila da, baina ondorengoentzako Trapagaran euskaldunaren ametsa geure mendi barrunbeetako burdina bezain beste errotu zaigu bihotzetan. Horrek ematen digu bideko lahar sasiak garbitu eta aldapak gaintzeko indarra.

Beraz arazo honi irtenbide eman asmoz eta arduradun publiko zein hautetsiek herria euskalduntzearen bidean borondaterik ez dutela ikusirik, azken urteetan herriko Basetxe gaztetxearen aldetik sortu behar izan ditugu gabezia honi aurre egiteko alternatibak.

Horretarako azaroaren 18an Arkotxa plazan herri kirol desafioa antolatu dugu Areatzako (Arratia) gazteekin elkarlanean. Ondoren iluntzean gaztetxean bertan bertso afaria izango dugu Amets Arzallus eta Sustrai Colinarekin.

Euskaraz aisialdia eta momentu goxoak pasatzeko aukera eskaintzeaz gain guretzat eremu euskaldunetako gazteekin harremanak sortzea oso garrantzitsua da. Eskerrik asko Areatzako gazteria! Honez gain egitasmo kolektiboak, talde lana, laguntasuna eta herri nortasuna bultzatu nahi ditugu. Ez dira hauek modan dauden kontzeptuak, baina balore hauek ematen digute aurrera ekiteko behar dugun hatsa eta guztion artean lortuko dugu:

TRAPAGARAN EUSKALDUNA, AMESLARIA ETA BIZIA!

biharko mundu hobean...

“Otsoko”

Ez dugu instituzioen laguntzarik ez eta herrian sentsibilitaterik, ondorioz bidea zaila da, baina ondorengoentzako Trapagaran euskaldunaren ametsa geure mendi barrunbeetako burdina bezain beste errotu zaigu bihotzetan.